

ESANAK

JUAN MARI ATUTXA

(Eusko Legebiltzarreko presidentea)

«Legebiltzarra ez dago prest beste botere batek Legebiltzar honi dagokion eskubidea zapaltzen uzteko»

GORKA KNÖRR

(EAKo idazkari nagusia)

«Eak Baltasar Garzonen aurkako prebarikazio kereila bat aurkezteko aukera aztertuko du»

PATXI LOPEZ

(PSE-EEko idazkari nagusia)

«Konstituzioaren 118. artikulua aurkako erabakia hartu da, eta erakundearen arteko liskarra sortu da»

CARMELO BARRIO

(PPko legebiltzarkidea)

«Argi geratu da EAJ, EA eta EB-IU Batasunaren eta ETaren babesle sutsuak direla»

KONTXI BILBAO

(Ezker Batuko legebiltzarkidea)

«Autoak Hauteskunde Legearen aurka doaz, hauteskundeak bertan behera utziko bailituzkete»



DAVID AGUILAR / EFE

Juan Maria Atutxa Eusko Legebiltzarreko lehendakaria, Eduardo Manzísidor legebiltzariarekin, atzo, Mahaiaren bilera hasi aurretik.

Sozialista Abertzaleak ez desegitea erabaki du Eusko Legebiltzarrak

Garzon epailearen aurka salaketa aurkezteko aukera aztertuko du Mahaiak, Legebiltzarreko eskuduntzak «usurpatzeagatik»

Edurne Begiristain | GASTEIZ

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Sozialista Abertzaleak taldea ez desegitea erabaki du Eusko Legebiltzarreko Mahaiak. Ganberako zerbitzu juridikoen egindako txostena aztertu ostean, Mahaiaren gehiengoak atzo erabaki zuen —PP eta PSEren kontrako botoekin— Baltasar Garzon epaileak hilaren 6an kaleratutako autoa «erabat balio-gabea» dela Legebiltzarrari dagokionez. Gainera, Mahaiaren arabera, Legebiltzarreko araudian eta txosten juridikoan ez dago inolako oinarriarik talde parlamentarioak bertan behera uzteko. Era berean, hartutako

erabakia eta txosten juridikoa Auzitegi Nazionalako bosgarren instrukzio epaitegira igortzea hitzartu du Mahaiak.

Juan Maria Atutxa presidentearen arabera, Mahaiaren erabakiaren helburua ez da Garzon epailearen autoei «men ez egitea», ezta Sozialista Abertzaleak taldea babestea ere. «Legebiltzarrak merezi duen errespetuaren eta antolatze gaitasunaren aldeko defentsa egitea da», azaldu zuen.

Atutxaren hitzetan, hartutako erabakia ganberako «independentzia eta eskubideak» defendatzeko izan da. «Ez gaude prest beste botere batek Legebiltzar honi dagokion eskubidea

zapaltzen uzteko», ohartarazi zuen. Beste edozein talde parlamentariorekin gauza bera erabakiko luketeela azpimarratu zuen: «Ez da desobediencia kontua, gauzak bere lekuan jartzea baizik».

Legebiltzarreko zerbitzu juridikoen egindako txostenaren inguruan Mahaiak egindako balorazioa jakinarazi zuen Atutxak. Mahaiaren ustez, txostenak argi uzten du abuztuaren 26ko eta irailaren 6ko autoen artean «desberdintasunak» daudela. Era berean, zeharo argitzen du alderdi politiko eta legebiltzar taldearen arteko loturarik ez dagoela. Bestalde, zehazten du eledunen eskubideak

«mugiezinak» direla, eta bukatzeko dio autoa Legebiltzar arloan sartzen dela eta bere autonomia gutxitzen duela.

Hala, egoeraren «larritasuna» kontuan hartuz, Atutxak jakinarazi zuen Mahaiak bestelako ekimenak ere abiaraziko dituela. Batetik, Zigor Kodearen 507. artikulua aztertuko du eta baliteke epailearen aurkako salaketa jartzea, Legebiltzarreko eskuduntzak «usurpatu» dituelako.

Bestalde, arlo juridikoan adituak diren hainbat erakunderi autoak eta txosten juridikoa igortzeko proposamena egingo dio Atutxak Mahaiari. Besteak beste, Abokatuen Eskolari eta EHUri igortzea proposatu du Atutxak.

Garzonen aurkako kereila eta PP eta PSE-EEren haserre

Mahaiak hartutako erabakiaz mintzatu ziren taldeetako ordezkariak. Hala, Gorka Knörrek jakinarazi zuen EAK Baltasar Garzon epailearen aurkako prebarikazio kereila bat jartzeko aukera aztertuko duela. Gisa berean, «epaileak bere funtzioak gaitzetzeko» behar bada CGPJn autoaren kontrako helegitea aurkeztuko dutela adierazi zuen.

EB-IUko legebiltzarkide Kontxi Bilbaok parlamentarioen eskubideak babestu behar direla azaldu zuen. Garzonen autoek eskubideak urratzen dituztela eta Legebiltzarreko autonomia-

parlamentarioa utzi izana eta orain «behartuak egotea» talde berean partaide izatera; talde mistoan baitago Batzarre. Batzarrek EHTik alde egin zuen ETAk su-etena hautsi zuenean.

Talde mistoan orain arteko ordezkariak atxikitzea eskatu du Rubiok. Ez duela inoren inposizioerik onartuko esan du. Halaber, taldearen funtzionamendua zehazteko beste zazpi parlamentariarekin bilera eginen duela esan du.

Nafarroako Parlamentuak bere araudia babestu ez izana salatu du Batzarrek

Irene Arrizurieta | IRUÑA

Baltasar Garzonen autoa dela-eta Nafarroako Parlamentuak bere araudia babestu ez izana salatu du Milagros Rubio Batzarreko legebiltzarkideak. Rubioren irudiko, Parlamentuak Batasuna talde

parlamentarioak lanean jarraitzeko bideren bat aurkitu behar zuen, taldea desegiteko eta talde mistora bidaltzeko neurriak Ganberaren funtzionamendua «desitxuratzeko» duelako.

Adierazi du «paradoxikoa» dela Batzarrek EHko talde